

Gorka Moreno Márquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

## Gazteak eta ezkontzak

**G**aurko honetan, eta izenburuak engainurako beta ematen badu ere, ez dut ezkontzen inguruko azterketa soziologikorik egingo, barrutik –hobe esanda poltsiko barrutik– egindako gogoeta mingarria baizik. Aurten demagun bi tokatu zaizkigula: goxo-goxoa –*petit suisseak* edota *donutsak* bezala– baino mikatza izaten da hauen zaporea. Aurten bi ezkontzetara gonbidatu gaituzte eta zoritxarrez –bai zoritxarrez– hurrengo urterako perspektibak ez dira hobeak.

Zenbat balio du gonbidatu baten-tzat ezkontza batek? Lehenik eta behin azkenaldi honetan hain modan jarritako *despedidak*: asteburu pasa nonbaitera, tartean zezenketen bataioa edota Irakeko soldaduak imitatu beharra, hauei noski gainontzeko osagarri etilikoak eta abar gehituz. Ez bagara Tenerife edo Río de Janeiroa joaten, dena erraz samarra: 300 eurotan –akaso 600 bikotearentzat ere–. Bigarrenik, ezkontzarako arropak erosi beharra. Mutilek gehiago disimulatu dezakegu arropa berak berriz ere eramanez, baina nesken kasuan –are gehiago koadrila bereko ezkontzak badira– estreinatzea behar-beharrezkoa izaten da. Gutxi-gutxienez, demagun, bikoteak 300 euro gastatu behar duela. Gero, ezkontza-menua ordaindu behar, Adriá edo Arzakera joan gabe, 300 euro bikote bakoitzeko, eta pentsatzekoa



INIGO AZKONA

denez, egun horretan zenbait gastu gehiago egongo da. Jarri dezagun 100 euro. Kopuru guztiak batuta, eta nahiko ikuspegi *agarrategi* batekin, denera bikotearentzat 1.300 euro ezkontza batengatik.

Ez naiz orain hasiko gazteon soldatei edota *mileurismoari* buruz hitz egiten, baina argi dago zer suposatu dezakeen ezkontza batek hipoteken garai hauetan. Urte berean ezkontza bat edo bi izateak oporrik gabe gelditzea dakar aukerarik onenean eta txarreanean arazo are larriagoak sortzea. Hori edo gonbitari ezetza esateko, aitzakia bilatu behar duzu edo guztien aurrean zure egoera ekonomikoa zein den azaldu behar duzu. Ez bata ez bestea ez dira aukera batere erakargarriak. Ez dakit nik ezkontzen maldizioei buruz hitz egin dezakegun, baina askotan aspal-diko lagun batek gelditzeko deitzen dizunean, niri behintzat, beldur ikaragarria sortzen zait, beste ezkontza batera joateko behartuta izango naitzen pentsatuz.

Bukatzeko eta aldizkari honek ematen dizkidan lerro hauek aprobetxatuz, berri on bat nire inguruko lagun eta senide guztientzat: nire ezkontza ez da ohikoa izango. Eta ingurukoei ere erregu bat: argi izan egun modan dauden ezkontza erraldoiez gain beste bizitza bat badagoela, beste ezkontza batzuk posible dira, kontutan hartu ezazue, mesedez. ■



Urtean ezkontza bi izateak  
oporrik gabe gelditzea dakar  
aukerarik onenean, eta txarreanean  
are arazo larriagoak sortzea



## TXANDAN

Igor Estankona



Edo beste Amerika. Amerika bihozbera

bezain erreala baita, zoritxarrez, aurka gauzkan Amerika. Hauteskunde primarioetan osasun-laguntzaz eta gizarte politikez asko hitz egin ez denez, itxura batean horiek ez dira arazo AEBetan. Eta badakigu baietz, auzi horien inguruan garatu direla borroka interesgarrienak hantxe bertan.

Reaganek suntsitutakoa –ez bakarrik elkartasunerako programak, ezpada ongizatearen ideia bera– zuzenduko ote duten datoen urteetan ikusgai dago.

Lapurrenak, faxistenak, boterean direlarik mezua da programak ez direla behar, enpresa pribatuak ondo ardu-

## Benetako Amerika (VI)

ratzen direla arazo horietaz.

Emakumeak ez du ulertzen ezer, gutuna bidali du herriko egunkarira: “Nik AFDCko laguntzak behar ditut, eta seme-alabak eskoladinean dauzkat. Urtean 8.000 \$ baino gutxiago ordaintzen diren beharrak eskatu ditut. Egun erdiko lanaldia daukat liburutegi batean orduko 3,5 \$en truke; beraz laguntza gutxitzen didate hori konpentsatzeko. Hau da, beraz, nire gurasoak hona ekarri zituen Ameriketako Amets Handi hori: egin lan sano, hezkuntza jaso, arauak errespetatu eta aberastuko zara. Nik ez dut aberats izan nahi. Nire seme-alabak mantendu gura ditut bakar-bakarrik eta duintasunez bizi”. ■